**Arrigorriagako Udal Euskaltegia**

H3-EST:03 KONTSESIBOAK: BA...ERE

**KONTSESIBOAK:**

**BA.........ERE / NAHIZ ETA... / ......ARREN**

## KONPARA ITZAZU ESALDI HAUEK

- Asko jakin arren, oso ondo disimulatzen zuen.
  Nahiz eta asko jakin, oso ondo disimulatzen zuen.
  Asko bazekien ere oso ondo disimulatzen zuen.
- Nahiz eta orain ez ulertu, gero arrazoia emango didazu.
  Orain ulertu ez arren, gero arrazoia emango didazu.
  Orain ulertzen ez baduzu ere, gero arrazoia emango didazu.
- Oso azkarra izan ez arren, badakit egia eta gezurra bereizten.
  Nahiz eta oso azkarra ez izan, badakit egia eta gezurra bereizten.
  Oso azkarra ez banaiz ere, badakit egia eta gezurra bereizten.
- Nahiz eta ez gustatu, jan egin behar duzu handia egiteko.
  Gustatu ez arren, jan egin behar duzu handia egiteko.
  Gustatzen ez bazaizu ere, jan egin behar duzu handia egiteko.

## ALDA ITZAZU ESALDI HAUEK "BA...ERE" ERABILIZ:

1. Gezurra dirudi, baina egi-egia da, neuk ikusi nuen eta.
2. Tontoa naiz, baina ez horrenbeste.
3. Dena daki asto honek, baina mintzoa falta zaio.
4. Nahiz eta emakumezalea izan, ez da feminista.
5. Itsusiak zen, halere gorriak ikusi zituen.
6. Prakak jantzita ibili arren, ez da bera etxe horretako prakaduna.
7. Nahiz eta burutsu guztiek burua izan, ez dira burutsuak burua duten guztiak.
8. Dauden guztiak dira, baina ez daude diren guztiak.
9. Nahiz eta elkarrekin jan, ez zuten elkar jan.
10. Itsusiak ziren, halere "ikusi arte" esanez agurtzen zuten elkar.
11. Lan egin arren, nagusiak dira; hortaz, langileak nagusiak dira.

Arrigorriagako Udal Euskaltegia

H3-EST:03 KONTSESIBOAK:
BA...ERE

**ZUZENKETA**

**KONTSESIBOAK:**

**BA.........ERE / NAHIZ ETA... / ......ARREN**

**KONPARA ITZAZU ESALDI HAUEK**

- Asko jakin arren, oso ondo disimulatzen zuen.
  Nahiz eta asko jakin, oso ondo disimulatzen zuen.
  Asko bazekien ere oso ondo disimulatzen zuen.

- Nahiz eta orain ez ulertu, gero arrazoia emango didazu.
  Orain ulertu ez arren, gero arrazoia emango didazu.
  Orain ulertzen ez baduzu ere, gero arrazoia emango didazu.

- Oso azkarra izan ez arren, badakit egia eta gezurra bereizten.
  Nahiz eta oso azkarra ez izan, badakit egia eta gezurra bereizten.
  Oso azkarra ez banaiz ere, badakit egia eta gezurra bereizten.

- Nahiz eta ez gustatu, jan egin behar duzu handia egiteko.
  Gustatu ez arren, jan egin behar duzu handia egiteko.
  Gustatzen ez bazaizu ere, jan egin behar duzu handia egiteko.

**ALDA ITZAZU ESALDI HAUEK "BA...ERE" ERABILIZ:**

1. Gezurra dirudi, baina egi-egia da, neuk ikusi nuen eta.
   GEZURRA BADIRURI ERE, EGI-EGIA DA, NEUK IKUSI NUEN ETA.
2. Tontoa naiz, baina ez horrenbeste.
   TONTOA BANAIZ ERE, EZ HORRENBESTE.
3. Dena daki asto honek, baina mintzoa falta zaio.
   ASTO HONEK DENA BADAKI ERE, MINTZOA FALTA ZAIO.
4. Nahiz eta emakumezalea izan, ez da feminista.
   EMAKUMEA BADA ERE, EZ DA FEMINISTA.
5. Itsusiak zen, halere gorriak ikusi zituen.
   ITSUA BAZEN ERE, GORRIAK IKUSI ZITUEN.
6. Prakak jantzita ibili arren, ez da bera etxe horretako prakaduna.
   PRAKAK JANTZITA BADABIL ERE, EZ DA BERA ETXE HORRETAKO PRAKADUNA.
7. Nahiz eta burutsu guztiek burua izan, ez dira burutsuak burua duten guztiak.
   BURUTSU GUZTIEK BURUA BADUTE ERE, EZA DIRA BURUTSUAK BURUA DUTEN GUZTIAK.
8. Dauden guztiak dira, baina ez daude diren guztiak.
   DAUDEN GUZTIAK BADIRA ERE, EZ DAUDE DIREN GUZTIAK.
9. Nahiz eta elkarrekin jan, ez zuten elkar jan.
   ELKARREKIN JAN BAZUTEN ERE, EZ ZUTEN ELKAR JAN.
10. Itsuak ziren, halere "ikusi arte" esanez agurtzen zuten elkar.
    ITSUAK BAZIREN ERE, "IKUSI ARTE" ESANEZ AGURTZEN ZUTEN ELKAR.
11. Lan egin n arren, nagusiak dira; hortaz, langileak nagusiak dira.
    LAN EGITEN BADUTE ERE, NAGUSIAK DIRA; HORTAZ, LANGILEAK NAGUSIAK DIRA.